

LH 3 eta 4

*Ongi pasa nahi?
Zatoz gurekin,
orduan!*

MultzoEKIN

*Ekintza multzo berezi
honi lagunartean
ekinen diogu!*

Go!
azen

**Apirilak 16, 23, 30
eta maiatzak 7**

16:00 - 17:15era, Lotza Kulturagunean

ZIENTZIArekin saltsan ibiliko gara,
MAGIA egiten erakutsiko digute,
GOAZEN! dantza egingen dugu
eta **ZIRKOA**n ibiliko gara





4 ekintza hauek osatzen dute MultzoEKIN:

APIRILAK 16, ZIENTZIAREKIN SALTSAN: zientziaren mundura hurbilduko gara. Etxeko materialekin esperimentu erreza eta dibertigarria egitea proposatuko dugu, jostatzeko beste modu berri bat ezagutzeko, esperimentuen eta zientziaren bidez.

APIRILAK 23, MAGIA: Sormen-trebetasunak hobetu eta irudimenari hegan egiten utziko diogu, magia trikimailuak landuz eta magiaren sekretu bakarra ilusioa, lana eta konstantzia direla ikusiz.

APIRILAK 30, GOAZEN! Dantza eta kirolaren bidez, begiraleek teknikak eta pausoak irakatsiko dizkigute, koreografia bat asmatzeko. Goazen! telesailko abestiren bat aukeratuko dugu horretarako.

MAIATZAK 7, ZIRKOA: zirkoko teknikak ezagutuko ditugu: malabareak, akrobaziak, clown... beti ere jokoan, sormenaren eta parte-hartzearen bidez.



IZEN-EMATEA (LH 3,4, MARTXOAK 24-26)

Plaza mugatuak. Lehenetasuna: MultzoEKIN osorik hartuta (4 ekintzak) eta Aintsoainen erroldatutakoek. Antsoainen erroldatutakoak: MultzoEKINen 4 jarduerak 10 €. Jarduera bat 3,75 €. Antsoaindik kanpo erroldatutakoek: MultzoEKINen 4 jarduerak 14 €. Jarduera bat 4,75 €.

Izena emateko, haur bakoitzeko fitxa bat bete eta sinatu, argazkia atera eta euskera@ansoain.es helbidera bidali, mesedez, martxoaren 24tik 26ra, gaian MultzoEKIN jarrita. Martxoaren 30ean, izen-ematea jaso izanaren erantzuna, eta, hala badagokio, plaza konfirmazioa matrikularen jarraibideekin jasoko duzue.



X jarrita markatu aukeratzen duzun jarduera:

Multzo EKIN <input type="checkbox"/>	Apirilak 16, ZIENTZIA <input type="checkbox"/>	Apirilak 23, MAGIA <input type="checkbox"/>	Apirilak 30, GOAZEN! <input type="checkbox"/>	Maiatzak 7, ZIRKOA <input type="checkbox"/>
--	--	---	---	---

Haurraren izen-abizenak:

Ikastetxea:

Ikasmaila:

Arduradun legalaren @helbidea:

Arduradun legalaren tel:

Arduradun legalaren sinadura:



Antolatzailea: Antsoaingo Udal Euskara Zerbitzua.

Kudeatzailea: Dindaia Fundazioa.

Haurrek ezin izanen dute sartu COVID 19rekin bateragarriak diren sintomak adieraziz gero. Musukoa jantzita edukitzea eta eskuak hidrogelaz bustitzea derrigorrezkoa izanen da. Kanpoan itxaron behar zaie haurrei, eta ezin da jostailurik, jatekorik, edatekorik... ekarri kanpotik.

Datu pertsonal hauen tratamenduaren arduraduna Antsoaingo Udalaren Euskara Zerbitzua da. Tratamenduak helburu du MultzoEKIN jardueretan parte hartzeko interesa dutenak antolatzea. Halaber jakinarazten zaizu datu hauek Dindaia Fundazioari lagako zaizkiola, jarduera kudeatzeko helburuarekin. Elkarrearen egoitzan, NA edo dokumentu baliokide bat erakutsita, eskubidea duzu datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko, bai eta datuen tratamenduari mugak jartzeko ere. Pribatutasunari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu www.ansoain.eus helbidean.